



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu



TAXI MAHAIA / MESA DE TAXIS

2021eko irailaren 14

GAI-ZERRENDA:

1. Sektorearen egungo egoera aztertzea.
2. Información relacionada con:
 - a) Bilbao Bizkaia Turismo Bona.
 - b) Online prestakuntza-egutegia.
 - c) Getxo Taxi Tour Zerbitzua: gorabeherak.
 - d) "Getxo Bihotzetik" proiektua.
 - e) Tokiko kontsumoarekiko sentsibilizazio eta sustapen kanpaina.
 - f) 2021eko Getxo Bona: kanpainari buruzko datuak.
 - g) GetxON: Marka berritzea.
 - h) Dinamizaziorako 2021erako laguntzak.
 - i) Covid-19ari aurre egiteko aparteko laguntzak.
 - j) 'Batuz' sistema.
 - k) Kontrataziorako 2021erako laguntzak.
3. Ideia eta proposamen berriak.
4. Galderak, iradokizunak eta beste gai batzuk.
5. Hurrengo urratsak.

BATZARKIDEAK: (%100)

DEITUAK		BATZARKIDEAK	ABSENTZIAK	
			Justifikatu - takoak	Justifikatu gabeak
Taxi Sektorea	José Ignacio López (presidente Bizkai Taxi)	X		
	Ricardo Martínez (en representación de Getxo Taxi Tour)	X		
Getxokoko Udala – Ekonomia sustapen arloan	Mirene Zabalgogezkoa	X		
	Sonia Urdiain	X		
	Sara de la Fuente	X		



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

EDUKIAK:

1. Batzarkideei agurra eta sektorearen egungo egoeraren analisisia.

Bilerako parte-hartzaileak agurtu eta aurkeztu dira eta, ondoren, taldeko eztabaida txiki bat egin da udako denboraldia eta sektorearen itzaropenak jorratzeko. Bertaratuek honakoak azaldu dituzte:

José Ignacio Lópezek, BizkaiTaxiko presidentek, azaldu du uztaila eta abuztua pixka bat hobeak izan direla herritarrek mugitzeko askatasun gehiago izan dutelako eta bidaiatu ahal izan dutelako (aireportuetara egin beharreko joan-etorriak eta abar gehitu dira) eta Euskadin eguraldi txarra egin duelako (ondorioz, irteera gehiago egin dira). Hala ere, maiatzetik abuztura covidaren aurreko garaiarekin alderatuz (2019) batez beste % 50 gutxiago fakturatu dute.

Udazkena zaila izango dela uste dute, izan ere, lanerako joan-etorriak egiten dituztenen menpe egoten dira urtean zehar nagusiki. Horri dagokionez, baliteke ABEEak bukatzen hastea eta, gainera, pandemian lan egiteko modu berriak sortu dira (telelana eta online egiten diren bilerak, besteak beste) eta horrek guztiak ondorio negatiboak ditu sektorearen eskarian.

Udal teknikariek, aireko konexioei dagokienez, bertaratuei jakinarazi diete urrian gaur egunera arte mugatuta zeuden konexio asko berriz ere martxan jartzea aurreikusita dagoela.

2. Honako gai hauek jorratzen dituen informazioa:

a) BONO TURISMO BILBAO BIZKAIA:

Iraila heltzen denean, sektoreari dagozkion jardueren eskaria geroz eta urriagoa izango da. Hori dela eta, urteko azken lauhilekoan turismoaren arloko eskaria sustatze aldera, Bizkaiko Foru Aldundiak bonu hau sortu du, Bilboko Udalarekin batera.

Horrezaz gainera, Euskadi Turismo Bonuaren *modus operandi* bera izango du eta, bonu horri atxikita dauden guztientzat, bonu-kanpaina berri honetarako aurkeztu beharreko dokumentazioa urriagoa izango da, eta sarbide-gakoak berdinak izango dira. Azpimarratu behar dugu, halaber, bi bonu horiek elkarren artean metatu ahal izango direla; hau da, erosketa bera egiteko, Euskadi Turismo Bonua eta Turismo Bilbao Bizkaia Bonua batera erabili ahal izango dira, halako moldez non bezeroak % 83 inguruko deskontua lortu ahal izango baitu.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Egun dauden bonu motak azaltzen dira, eta sektore honetarako interesgarria da *Turismo Jardueren Bona*, Taxi Tour zerbituagatik. Bonu hauek 50 €-koa (% 50eko finantzaketa du). Honako hauek dira kontuan hartu beharreko data garrantzitsuak:

- **ATXIKIMENDUAK** (enpresak/establezimenduak): abuztuaren 23tik abenduaren 31era (edo agortu arte). Teknikoki ahalik eta lasterren egitea gomendatzen da, betiere irailaren 22a baino lehen, bona sustatzeko kanpaina datozen egunetan hasiko baita.
- **BONU-SALMENTA** (bezeroak): irailaren 22tik abenduaren 31era (edo agortu arte).
- **BONU-TRUKEA** (enpresak/establezimenduak eta bezeroak): irailaren 22tik abenduaren 31era (edo agortu arte).

Informazio gehiago, hemen: [Hasiera > Getxon bizi > Getxolan > Berriak - Xehetasuna](#)

Funtzionamendua azaldu ondoren egiaztatu da Getxo Taxi Tourreko zerbitzuen prezioa 38 eurokoa dela, eta 50 euroko gutxieneko kontsumora iristen ez denez, bono hori ez litzatekeela beraien zerbitzuan erabiliko.

b) ONLINE PRESTAKUNTZA-EGUTEGIA:

Batzarkideei jakinarazi zaie online prestakuntza berriak eta doakoak daudela; prestakuntza horiek interesgarriak dira hobetzen eta hazten jarraitzeko sektorearen jardura jaisten hasi den denboraldi honetan (ikus 5-6. diapositibak).

Bereziki aipatzen da prestakuntza horiek guztiak **Etika Kodearen** programaren barruko prestakuntzat hartzen direla, eta, hainbestez, **emaitzetan puntuatzen dutela urte amaieran erdietsitako beharkizunei dagokienez**. Horregatik, programa honetan parte hartzen arituz gero, egindako ikastaroen berri ematea hagitik garrantzitsua dela jakinarazten da.

Beste alde batetik, astearte komertzialen jardura berreskuratzen da, hau da, salmentaren gai komertzialera berariaz bideraturik dauden saioen zikloa. Talde-hausnarketa eta banakako lana, aholkularitza-zerbitzuekin batera. Hurrengo saioen datak ematen dira. (Ikus 7. diapositiba).

Informazio gehiago, hemen:

<https://www.getxo.eus/eu/getxolan/noticias/544>



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

c) GETXO TAXI TOUR ZERBITZUA: GORABEHERAK.

Zerbitzuan gorabehera jakin batzuk egon dira. Bereziki kezkarriak dira aurretiaz egiten diren zerbitzuaren erreserba eskariak, izan ere, zailtasunak egoten dira horiek bete ahal izateko. Gainera, gaur egun orokorrean lan gutxiago dagoenez, aukera moduan planteatu ahalko litzateke.

Bertaratuek esan dute zerbitzu horrekiko interes gutxi dagoela orokorrean. Ez bakarrik tarifarengatik eta langile gutxi behar direlako, baizik eta beraien lanaldia zerbitzu eskari gehiago dauden orduetan oinarritzen dutelako, eta, hala ere, taxi-tourreko eskariak edozein unetan egin daitezkeelako, eta, beraz, balitekeelako une horretan zerbitzutik kanpo edo atsedendaldietan egotea.

2022rako zerbitzuaren barne balorazioa egitea eta zerbitzua berriz ere antolatzea edo eguneratzea eskatu dute, hala, beharrezkoa denerako "erreserba bidezko baja zerbitzua" gehitzeko eta beraien lana egokitu eta koordinatu ahal izateko eta, ondorioz, publizitatearen eta zerbitzua hedatzearen bitartez sortzen ari garen eskaria bete ahal izateko.

d) "GETXO BIHOTZETIK" PROIEKTUA.

Getxo Bihotzetik Proiektua komentatu da. Proiektu hau "GetxoEkinez!"-en onartutako ezohiko proiektuetako bat da eta mahai sektorialen eskaera batzuei erantzuteko sortu zen. Hauek dira proiektuaren helburu nagusiak:

- ✓ Gualdien kopurua handitzea.
- ✓ Bilbo-Bizkaia Handiko enpresei MICE zerbitzuak eta baliabideak ezagutaraztea.
- ✓ Estatuko eta nazioarteko kalitate-talde berriak Getxora ekartzea.

Horretarako lantalde bat sortu zen; lantalde horretan zerbitzuen hornitzaileak eta ekimenen garapenez arduratzen direnak sektorea bera dira, Udalaren laguntzarekin. Talde sustatzailea Mice Design enpresako Virginia Pérez eta Go Basquing-eko Iñigo García Valenzuela dira.

Hona hemen jarduera-ildo nagusiak:

1.- *Nola proiektatuko garen eta zer erakarri nahi dugun definitzea*, Getxo markaren balioak identifikatuz eta gure produktuak eta zerbitzuak kokatzen lagunduko diguten "istorioak" sortuz. Modu parte-hartzailean eta mahai sektorialekin eta Getxoko enpresa-sare osoarekin lan eginez.

2.- *Beren negozio-eredua eta/edo zerbitzuak berrikusten interesa duten enpresei laguntzea*, hobetzeko arloak definituz eta produktu eta



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

esperientzia berriak zehaztuz, eta/edo lehendik daudenak MICE merkatuan saltzeko egokituz.

3.- *Online komunikazio- eta merkaturatze-kanpaina*, "istorio", zerbitzu eta/edo produktu horiek zabaltzeko.

4.- *Alderantzizko merkaturatze-jardunaldiak antolatzea*: Fam-Trip (ohitzeko bidaiak) presentzialak (5) eta birtualak (10), eskaintza erosi eta/edo merkaturatu dezaketen enpresa eta eragile interesgarriei eskaintzaren berri emateko.

Adibide gisa; goiz oso baten udalerrian zehar zenbait jarduera antolatzen dira horientzat. Hori guztia enpresa horiek esperientziak zuzenean bizi ditzaten eta eskaintza horren atzean dauden enpresak ezagutu ditzaten egiten da, loturak ezarri ahal izateko. Desberdintzea da gakoa, jarduera edo istorio bakar eta desberdinak eskaini ahal izatea.

Orain arte, maiatzetik ekainera bitartean, egindako ekintzak eta irailetik abendura bitartean egingo direnak azaltzen dira (ikus xehetasunak 10-11-12-13 diapositibetan), eta adibide gisa honako bideo hau ematen da:

<https://drive.google.com/file/d/1oOYHWL22F94Yk3tN6gLOmSb92IagYcr3/view?usp=sharing>

Proiektu honetan enpresa guztiek parte har dezakete eta bat egin dezakete helbide elektronikoko honetara eskaera bidalita: visitgetxo@getxo.eus

e) TOKIKO KONTSUMOAREKIKO SENTSIBILIZAZIO ETA SUSTAPEN KANPAINA:

Kanpaina horren leloa "Garrantzitsuena beti eskura" da, eta Enpresen Kontsulta Foroak eskatuta sortu zen. Kanpaina horren helburu nagusia udalerriko establezimenduen kontsumoa sustatzea da. Kanpaina honek bi merkaturatze- edo indartze-txanda zituen: bata maiatza-ekaina bitartean eta, hurrengoa, urria-azaroa bitartean. Hainbestez, jakinarazten zaie ezen urritik aurrera publizitate-euskarriak berriro helaraziko zaizkiela, partekatu ahal izateko.

Ildo horri jarraikiz, eskuratu diren datuen emaitzak erakusten zaizkie batzarkideei (ikus xehetasuna 15. diapositiban). Horrezaz gainera, gauzatutako intzidentzia eskualde mailakoa zen: Getxo, Leioa, Erandio, Sopela, Berango, Plentzia, Barrika, Gorliz eta Urduliz.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

f) 2021EKO GETXO BONUA. KANPAINARI BURUZKO DATUAK:

Mahaiari 2021/09/06an jasotako datuen berri ematen zaio (ikus 16-17-18 diapositibak). Taxien sektorea kanpainaren parte izan litekeen sektorea da. Hurrengo urtean kanpaina errepikatzeko asmoa egonez gero, sektoreari jakinaraziko zaio. Bestalde, eta kudeaketa sistema dela-eta, beharrezkoa litzateke Getxoko lizentzia guztiak kanpainan gehitzea.

g) GETXON: MARKA BERRITZEA.

Marka hori bere garaian tokiko saltokiak multzokatzeko sortu zen arren, gaur egun zaharkitua eta geldirik dago. Horregatik, sektore mahaien aurreko bileretan eskatu moduan, bigarren aukera bat eskaintzea eta zentzu zabalagoa emateko berriz ere diseinatzea proposatu zen. Helburua udalerriko enpresa parke guztia bertan biltzea (hau da, merkataritza, ostalaritza, zerbitzuak, aisialdia, eta abar) eta sektoreen arteko konexioa indartzea da, hala, jende gehiagorengana heltzeko.

Beraz, proiektu horretan lanean hasiko gara, eta, horretarako Maria Goñi diseinatzaile grafiko getxotarra kontratatuko da. Hala ere, sektore bakoitzak bere ekarpenak egin beharko ditu guztientzako adierazgarria izan dadin, eta, horretarako, sektore guztiakin eta aipatutako profesionalarekin bilera bat egingo da. Ideia nagusia hiruhileko honetan gauzatzea eta saltokien bilatzailea berritzeko proiektuarekin lotzea da.

h) DINAMIZAZIORAKO 2021ERAKO LAGUNTZAK:

Laguntza-lerro hauen emakiden ondoriozko proiektuak eta berauen esleipendunak azaldu dira (ikus xehetasunak 19-20-21. diapositibetan); gai honi dagokionez, sektorearentzat bereziki interesgarriak dira 2., 3. eta 4. lerroak, eta aukera aprobeztatu da batzarkideak hurrengo urteari begira horiek eskatzera animatzeko.

Sektorearentzako bereziki gogorarazi da azkenean, bere izaera juridikoa zela-eta, ezin izan zutela 3. lerroan *“Udalerriko enpresek negozio lerro eta/edo produktu eta/edo merkaturatze bide berritzaileak abiaraztea sustatzeko eta dinamizatze laguntzak”* jasotzeko aplikazioa garatzeko egindako inbertsioa aurkeztu. Hala ere, 2022ko dinamizazio laguntzetan bestelako izaera juridikoak gehitzea aztertuko da.

i) COVID-19ARI AURRE EGITEKO APARTEKO LAGUNTZAK:

Covid-19ari aurre egiteko aparteko laguntzei dagokienez, atxikimenduen lehen epealditik (05/29 - 06/14) atera diren datuak honako hauek izan ziren:



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

- **257 eskabide:** 248 laguntza eman ziren, guztira 324.680 euro; 6 eskabide ukatu ziren, eta 3 enpresak atzera egin zuten.
- Enpresa onuradunen profila:
 - 173 enpresak eskatu zituzten laguntzak, **sektorea ixteagatik.**
 - 75 enpresak eskatu zituzten laguntzak, **udalerriaren itxitura perimetralagatik.**
- Enpresen **sektoreen** arabera:
 - Ostalaritza: 173 (% 69,8)
 - Turismoaren arloko zerbitzuen enpresak: 27 (% 10,9)
 - Ostatuak: 5 (% 2)
 - **Taxiak: 43 (% 17,3)**
- Enpresen forma juridikoaren arabera:
 - Pertsona fisikoak: 144 (% 58,1)
 - Ondasun-erkidegoak eta nortasun juridikorik gabeko beste elkarte batzuk: 29 (% 11,7)
 - Pertsona juridikoak: 75 (30,2%)

Bigarren epealdian (05/11 – 06/30), **hirugarrenean (gaur egungoan, 09/01 – 09/15)** legez, ez da eskabiderik jaso. Hala ere, laguntza hau urtea amaitu arte egongo da indarrean, gerta daitezkeen egitateengatik.

Informazio-koadroa:

<https://www.getxo.eus/DocsPublic/getxolan/AYUDAS COVID 2021/Web Ficha Resumen Ayudas Covid 2021 eus.pdf>

Sektoreari zorionak eman zaizkio, bateratasun gehienarekin dirulaguntza eskatu duena izan baita.

j) **BATUZ SISTEMA.**

Berrikuntza gisa, jakinarazi da Foru Ogasunak bere nahitaezko ezarpen-data **2024ko urtarrilaren 1era** luzatu duela. Hala ere, egokitzapena data hori baino lehen egiten duten enpresa guztiek oraindik zehaztu gabeko zerga-kenkariak jasoko dituzte Foru Ogasunaren aldetik.

Horrezaz gainera, Enpresen Kontsulta Foroan landutako eskaeretako bat, atzo politikariei Kontraste Mahaian helarazi zitzaiena, enpresei zuzendutako laguntza-lerro bat abiarazteko aukera zen, trantsizio horrek sektoreei ekarriko dizkien inbertsio guztiei aurre egin ahal izateko. Udal teknikariak horren inguruan hartuko den erabakiaren zain daude.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Egokitzapen horretan lanean jarraitzeko, online informazio-jardunaldiak eskaintzen jarraituko da, bai eta ondorik banakako aholkularitza jasotzeko aukera ere. Hurrengo saioak honako hauek izango dira:

- 09/29; 13.30etatik 14.30etara
- 11/09; 13.30etatik 14.30etara

Izen-emateak webgune honetan jasoko dira: www.getxo.eus/eu (egun bat lehenago, gutxienez)

Batuz sistemari buruzko informazio gehiago hemen: <https://www.batuz.eus/eu/hasiera>

- Homologatutako softwareen zerrenda: <https://www.batuz.eus/eu/software-erregistroa>
- Borondatez ezartzeko pizgarrien iragarkia: <http://ow.ly/AB5I50GjXT3>

Sektoreari gomendatu zaio egokitzapen prozesua azken unera arte ez uztea eta argi izatea zeintzuk diren horretarako gauzatu behar dituzten kudeaketa guztiak. José Ignacio Lópezek, Kontraste Politikoko Mahaian aipatu moduan, berriz ere adierazi zuen autoa eta taximetroa aldatzea derrigorrez elkarrekin lotuta daudela, eta, beraz, *Batuz Sistema betetzeko ekipamendu teknologia eskuratzeko* laguntza lerroa sortzearen inguruan hartu ahal izango den erabaki politikoaren zain daudela. Bestalde, azaldu dute bakarrik taximetroa aldatu ahal izango zutela, baina autoa aldatzean, instalazio bikoitzak kostu gehigarria sortuko lukeela.

k) KONTRATAZIORAKO 2021ERAKO LAGUNTZAK:

Era berean, Mahaiari jakinarazi zaio Lanbidek urtero ateratzen dituela laguntza horiek, interesa duten udalei bi jarduera-ildotara bideratuko den diru-kopuru bat emateko aldera:

- Udaletan langile laguntzaileak kontratatzea.
- Enpresei zuzendutako deialdi publiko bat abiaraztea, haien kontratuak diruz lagundu ahal izateko. Aurtengo deialdiak **2021eko uztailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasitako kontratuak** estaliko ditu.

Gaur egun, Udala Lanbideren ebazpenaren zain dago. Nolanahi ere, 2020ko laguntzaren baldintzen laburpen-taula ematen da, 2021eko deialdian ere berori errepikatuko baita:

https://www.getxo.eus/DocsPublic/Ficha_Resumen_Ayudas_Contratacion_2020_eus.pdf



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

3. Ideia eta proposamen berriak:

Aipatu da ezen une honetan Udala eta administrazio publikoak 2022rako aurrekontuak prestatzen ari direla, eta urtearen hasieran itxi ohi direla. Atzo, Kontraste Politikorako Mahaian, urte hasierako mahaietatik atera ziren sektore guztien eskaera eta behar askoren berri eman zen.

Hala ere, sektoreko enpresak sektorearen egoera orokorra hobetzeko landu beharreko proposamen edo gairen bat dagoen baloratzera animatzen dira, hori helarazteko unea baita. Xede hori erdieste aldera, posta elektronikoko kontu hau ematen da, ekarpenak bertara igorri ahal izateko:

taxi@getxo.eus

Kontuan hartu beharreko lehenengo ideia hauxe da: 2022rako taxien ordenantza eguneratzeko aukera, izan ere, egungoa 1973koa da eta edukia iraungita dago.

4. Galderak, iradokizunak eta bestelakoak.

Sektoreari mesederik egiten ez dioten zenbait gertaera jakinarazi dira, eta horiek taxien sektoreko ordezkariak azaldu zituen baita ere Kontrasteko Mahai Politikoan. Zehazki, okupazio tasa ordaintzen duten aparkaleku batzuk kentzea da arazo nagusia. Gainera, taxien geltokian bertan zigorra jaso zuten eta tokirik ez zegoelako ilara bikoitzean autoa utzi zuten taxi gidarien kasuak ere aipatu dira. Talde teknikoak sailarekin batera egoera horien aurrean zer egingo den aztertuko du.

Halaber, ibilgailu hibrido/elektriko/egokitu bat eskuratzeko indibidualki sortzen diren kostu handien gaia aipatu da berriz ere, eta gai hori Kontraste Politikoko Mahaian ere jorratu zen. Teknikariek jakinarazi dute gaur egun beste administrazio batzuek ematen dituzten laguntzak soilik ibilgailu elektrikoak erosteko direla, eta ibilgailu bakoitzeko 10.000 euro ematen direla.

Horrez gain, karga puntua jartzeko garaje bat ez izateak sor ditzakeen arazoak ere aipatu dira, eta horregatik proposatu da ibilgailu berriak hibridoak izatearen aukera. Informazio berria jakinaraziko zaio sektoreari Gobernu Taldeak hartzen dituen erabakien arabera.

Sektoreak azaldu duen beste gai bat da udalaren eraikin baterako alokairua ordaintzen ari direla (ia hileko 400 euro 5 m²-ko lokal baterako) eta galdetu dute ea prezioa murriztu daitekeen. Teknikariek azaldu diete eskariaren berri emango dutela, baloratu dezaten.

Bestalde, galdetu dute zein den taxietan publizitatea eramateko egin zuten eskariaren egoera. Udal teknikariek bere egoera kontsultatuko dute dagokion arloarekin.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Jakinarazi digute barne araubide arloari aurkeztu zitzaizkiola eguneratutako estatutuak, eta udalaren eskariari erantzun ziotela.

5. Hurrengo urratsak:

- Enpresen Kontsulta Foroa: urriaren 5ean. Foro horretan, Sektoreko ordezkariak lehentasuna emango diete mahai sektorialetatik jasotzen diren proposamenei. Taxiaren Mahaiaren proposamenak ordezkariak defendituko ditu (Jose Ignacio Lópezek).

TAXIEN MAHAIAREN ERABAKIAK (2021-09-14):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	EGUNA
1. Bileraren aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuaren teknikariak	Bileraren ondoren
2. Arlo eskudunekin isuna eta Algortako taxientzako aparkaleku/gelditze plazak gutxitu izana kontrastatzea	Zerbitzuaren teknikariak	Bileraren ondoren
3. Getxo Taxi-Tourrean zerbitzua emateko barneko berrantolamendua baloratzea	Taxien elkarteak	Urtea bukatu aurretik
4. Arlo eskudunarekin udalaren lokalaren alokairu kostua kontrastatzea eta murriztea proposatzea	Zerbitzuaren teknikariak	Bileraren ondoren
5. Arlo eskudunari jakinaraztea, taxiaren erregelamendua eguneratzeko beharra; aukera balora dezan.	Zerbitzuaren teknikariak	Bileraren ondoren
6. Sektorearen egoera hobetu dezaketen eta/edo sektorea hobeto kokatu dezaketen proposamenak bidaltzea, horiek 2022an aplikatzeko	Sektoreko enpresak	Urriaren 30aren aurretik